



Laneko jardunbide onen eskuliburua

Koordinatzaile: INDESA 2010 SL

Irakurketa errazerako egokitzapena: Blanca Mata (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

Diseinua eta ilustrazioak: Mercedes Corretge

Picktogramen: Arasaac. Portal Aragonés de la Comunicacion Aumentativa y Alternativa



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsoneri zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalitzen da.

© Indesa 2010 SL

© Ilustrazioenak M. Corretge

Aurkibidea

Zein da eskuliburu honen helburua? 4

Nola jokatu behar dugu lanean? 5

- Ardura
- Eredugarritasuna
- Inpartzialtasuna
- Gardentasuna, zintzotasuna eta konfidentzialtasuna
- Errespetua eta berdintasuna
- Bazterketarik ez
- Lehiakortasunik ez
- Kontuak ematea
- Elkarlana


Zein dira lanean kontuan eduki beharreko lege printzipioak? 7

- Legeak
- Indesan lan egiten duten pertsonak
- Enpresaren irudia
- Indesaren harremanak beste enpresa edo entitate batzuekin
- Informazioa eta datuak
- Eskuliburua betetzea

Zer egin behar dugu eskuliburuak dioena betetzeko? 10

- Jokatu
- Babestu
- Errespetatu
- Jakinarazi

Zein da eskuliburu honen helburua?



Eskuliburu honetan Indesako langile guztiek nahitaez bete beharreko oinarrizko jokabide arauak azaltzen dira.

Jokabide arau hauek bi oinarri dituzte: besteei errespetua edukitzea eta lanean ardurarekin aritzea.

Gainera, arau hauek **etika** eta **moralaren** kontrako jokabideak eragozten dituzte.

Etika: zerbait etikoa da bidezkoa eta egokia denean.

Morala: erkidego bateko pertsonen jokabidean ontzat jotzen diren arauak eta ohiturak.





Nola jokatu behar dugu lanean?

Zazpi printzipio moral eduki behar ditugu kontuan lanean aritzean, besteeiko errespetua eta lanarekiko konpromisoa nagusi izan daitezen.

Honako hauek dira:



1. Ardura

Konpromiso bat daukagu enpresarekin. Horregatik, lanpostuko jardun guztietan modu etikoan eta arduratsuan jokatu behar dugu.



2. Eredugarritasuna

Jokabide eredu ona ezarri behar dugu geure lanpostuan. Horrela, enpresaren ospe ona mantentzen lagunduko dugu.



3. Inpartzialtasuna

Indesak zuzentasunarekin eta ardurarekin jokatzen du enpresarekin loturaren bat duten pertsona guztiekin.



4. Gardentasuna, zintzotasuna eta konfidentzialtasuna

Lanean argi eta zintzo aritu behar gara. Enpresarekin lotutako gai guztiak lanbide dekretuak dira.



5. Errespetua eta berdintasuna


Enpresarekin loturaren bat dute pertsona guztiek errespetu bera merezi dute.



6. Bazterketarik ez

Indesarentzat onartezina da enpresako langileek inolako bereizkeriarik jasatea, ez arrazagatik, ez generoagatik, ez desgaitasunagatik, ez gaixotasunagatik, ez erlijioagatik, ez sexu orientazioagatik, ez iritzi politikoengatik, ez adinagatik, ez nazionalitateagatik.

Bazterketa: pertsona batek beste bati ematen dion tratua, maila baxuagokoa balitz bezala. Pertsona horrek horrela tratatzen du desberdina delako edo ez duelako berdin pentsatzen.



7. Lehiakideekin ez

Indesako langileek ezin dute lan egin gurekin **lehian** ari diren beste enpresa batzuekin, ez eta lagundu ere. Nolanahi ere, kasu batzuetan baliteke enpresaren zuzendaritzak horretarako baimena ematea.

Lehiakortasuna: gureak bezalako gauzak egin edo zerbitzuak ematen dituzten beste enpresak.



8. Kontuak ematea

UIndesak bere kontuan argitaratzen ditu urtean behin. Horrela, pertsona interesdunek jakin dezakete enpresak zenbat diru daukan, zertan inbertitzen duen dirua eta urtean zehar zenbat kontu ikuskapen izan dituen.



9. Elkarlana

Indesako langileok elkarlanean jardun behar dugu geure hurbileko lankideekin eta hornitzaileekin, bezeroekin eta Indesatik kanpoko beste pertsona batzuek.



Zein dira lanean kontuan eduki beharreko lege printzipioak?

Indesan lan egiten dugun pertsonok legezko betebeharrak dauzkagu, hau da, legeek ezartzen dizkiguten betebeharrak batzuk.

Betebeharrak horiek honako hauekin lotuta daude:

- **Legeak**
- **Indesan lan egiten duten pertsonak**
- **Enpresaren irudia**
- **Indesaren harremanak beste enpresa edo entitate batzuekin**
- **Informazioa eta datuak**
- **Eskuliburua betetzea.**

Legeak



Indesan lanean ari garen pertsona guztiok geure lanpostuarekin eta egiten dugun lanarekin lotutako legeak eta arauak ezagutu eta bete behar ditugu.

Hain zuzen ere, honako hauei buruzko arauak ezagutu eta behar ditugu:

- Pertsonen eskubideak errespetatzea.
- Tratamendu bera eta bereizkeriarik ez.
- Ingurumena zaintzea.
- Ustelkeriaren aurkako borroka.
- Enpresari lehia ez egitea.



Indesan lan egiten duten pertsonak



Indesan lanean ari garen pertsona guztiok geure lanpostuarekin eta egiten dugun lanarekin lotutako legeak eta arauak ezagutu eta bete behar ditugu.

Honako hauek dira:

- Laneko arriskuen prebentzioa.
- Indesako langile guztiak kontuan eduki behar dituzte enpresak beren osasuna eta bestena babesteko ezartzen dituen arauak.
- Langileen elkartzeko eta sindikatu bati atxikitzeko eskubideak nahitaez errespetatzea.
 - Debekatuta daude pertsona guztien kontrako abusu mota guztiak: abusu fisikoa, sexu abusua, abusu psikologikoa, hitzezko abusua.
 - Enpresak konpromisoa hartzen du bertan lanean ari diren pertsonak lana eta bizitza pertsonala eta familiarra bateratu ahal izateko.

Enpresaren irudia



Indesan lan egiten dugun guztiok enpresaren irudia zaindu behar dugu geure lan jardunean eta jendaurreko ekitaldietan.

Baimenik eduki ezean, ezin dugu erabili Indesaren izena, ez irudia, foro eta sare sozialetan ari garenean.

Harremanak beste pertsona edo entitate batzuekin



Indesaren langileek beste entitate eta agintararitzekin dauzkaten harremanen oinarriak errespetua, elkarlana eta legea betetzea izan behar dira.

Lankide, bezero eta hornitzaileekiko lan harremanetan ezin da onartu ez eskaini oparirik, dirurik ez bestelako onura pertsonalik.

Halaber, Indesako langileen arteko familia edo adiskidantza harremanek ezin dute eraginik eduki lanean.



Indesako langileak modu pertsonalean ariko gara elkarteetan eta alderdi politikoetan.
Ezin dugu lotu geure lanpostua, ez enpresa bera, jarduera horiekin.

Informazioa eta datuak



Enpresaren dokumentuak argiak eta ulergarriak izan behar dira.
Eta horrelaxe adierazi behar dira.

Indesako langileek ezin dituzte aldatu enpresaren dokumentuak, eta haien inguruko informazio faltsua eman ere ez.

Datuen babesaren Legea bete behar da, eta enpresaren jardunerako behar diren datuak baino ez dira erabili behar.

Indesako langile guztiok bete behar dugu lanbide sekretua; ezin ditugu zabaldu publikoak ez diren enpresari buruzko datuak.

Eskuliburu betetzea



Indesan lanean ari diren pertsona guztiek bete behar dituzte Laneko jardunbide onen eskuliburuaren printzipioak.

Horretarako, enpresak eskuliburu honen edukia eta printzipioak zabalduko ditu bere bezero eta hornitzaile guztien artean eta Indesarekin zerikusia duten pertsona guztien artean.




Zer egin behar dugu eskuliburuak dioena betetzeko?



Jokatu

- Segurtasunari eta higienari buruzko arauak bete, laneko arriskuak prebenitzeko.
- Lanpostuko baliabideak aprobetxatu eta zaindu.
- Enpresak lanpostuko jarduna hobetzeko eskaintzen dituen trebakuntza jardueretan parte hartu.



Errespetatu

- Enpresa, eskuliburuaren balioekin bat datorren jokabide zuzen, zintzo eta inpartzialarekin.
- Enpresaren barruko arautegia.
- Enpresaren izena, irudia eta markak; horretarako, horiek laneko jardueretan bakarrik erabili behar dira.
- Posta elektronikoa eta Internet erabiltzeko arauak.



Babestu

- Sistema informatikoak; horretarako, segurtasun neurri guztiak bete behar dira.
- Enpresaren ekonomia, lanean ahalik eta gutxien gastatuz.



Jakinarazi

- Eskuliburu honetako arauk ezartzen dutenaren arabera egokiak ez diren gertaera eta jokabide guztiak.
- Lanean aurkitzen ditugun enpresaren akats edo ahuleziak.
- Geure kontra abiatzen diren prozedura judizial edo zigor prozedura guztiak.

